

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak mugakide diren udalerrien osasun-laguntzarako akordioa berritu dute

Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Bera, Arano, Goizueta, Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meano udalerrietako 10.000 biztanleri eragiten die

Viernes, 23 de enero de 2015

Osasun kontseilari Marta Verak eta haren homonimo Jon Darpónek akordio bat sinatu dute gaur goizean, Donostian. Haren bidez, bi komunitateen arteko lankidetzak berritzen da datozen hiru urterako mugakide diren udalerrien osasun-arretarako.

Akordioak Bortzirietako udalerrietako 10.000 biztanle ingururi eragiten die: Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Bera, Arano, Goizueta, Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meanori.

Zehazki, Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Berako bizilagunek laguntza espezializatua Irun eta Hondarribiako osasun-zentroetan jasoko dute, eta Arano eta Goizuetakoek, Donostiako Ospitale Unibertsitarioan eta haren inguruko zentroetan.

Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meanoko bizilagunen kasuan, lehen-mailako arretatik aurrerako laguntza Arabako osasun-zerbitzuetan emango da.

Bestalde, Osasunbideak ondroengoko esukal udalerrietako bizilagunei emango die osasun-laguntza: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu-Campezo, Lagran eta Haran/Valle de Arana

Gainera, Osakidetzak "bigarren iritzia" eskatzeko edo goi-espezializazio modura egindako desbideratzei arreta emango die, honako hauei buruzkoak direnak, batez ere: azterketa genetikoak, anatomia patologikoa, fibromialgia-diagnostikoak, esku hartzeko erradiologia, eta espezialitate jakin batzuk, neurokirurgia eta onkologia bereziki.